

2017ko ABENDUA

19.ZENBAKIA



A
L
D
I
Z
K
A
R
I
A

E
H
E
G
O
L
G
U
F

EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA

EDITORIALA

HIZKUNTZA- ETA KULTURA-ANIZTASUNA

Non dago Administrazioa?

Gaur egungo errealitateak finkatzen duen testuingurua erabat ezberdina da hainbat familiek gure seme-alabaren gortasun-diagnostikoaren unean duginarekin alderatuta, hizkuntzaren arloan beren garapenari dagokionez.

Gortasunak dakartzan **komunikazio-zailtasunei** familia- eta gizarte-ordenako garrantzia handiko beste elementu batzuk gehitzen badizkiegu, hala nola **hizkuntza-eta kultura-aniztasuna**, beste herrialde eta kultura batzuen parte izatearen ondoriozkoak, pertsona gorra hezte eta gizarteratzea zein lan-munduan txertatzea askoz ere zailagoa izango da.

Izan ere, haur edo gazte gorra dituzten familiak gero eta ugariagoak dira gure inguruan. Familia horiek, hainbat arrazoi direla medio, beren jatorrizko herrialdetik joan eta gurekin bizitzera etorri behar izan dira.



Eta haien guztien ezaugarri guztiak ikusita, konturatzen ari gara kasu batzuetan **Administrazioak ez diela behar duten arreta ematen, eta guk, elkarteok, hartu behar dugu haiei arreta emateko ardura.**

Administrazioak zurruntasunak ahaztu beharko lituzke eta arreta eman beharko lieke haur eta gazte horien beharrei, aintzat hartuta, beren gortasunari dela medio, zailtasun handiagoak dituztela inguruan txertatzeko.

Eskumena duten erakundeen aldeko nahikoa laguntzarekin, gure elkar-teen bizi duten errealitate berri horrek erronka bat planteatzen digu, egune-roko lana bultzatzen duena eta aukera sorta bat dakarkiguna, aberatsa eta ezberdina, zalantzarik gabe oso aberasgarria dena.

FEVAPAS 2017 PROGRAMAK

SOZIALIZAZIO-JARDUERAK: Aisialdiko heziketa-programak

Entzuteko desgaitasuna duten Euskadiko haurrei eta gazteei zuzenduta.



34 haur eta gazte gorrek asteburu ederra pasa zuten Barrian / Araba



15 eta 18 urte bitarteko gazte gorrek gizarte-proiektuak partekatu eta aktualitateko gaiak eztabaidatu zituzten Gasteizen.



Fevapasen barnetegiaren beste arrakasta bat. FEVAPASeko 29 neska-mutilek primeran pasa zuten Cabanillasen, Nafarroan.



Autoestimua, gatazkak konpontzea, emozioak kudeatzea, etab. Horiek izan ziren, besteak beste, 12 eta 18 urte bitarteko 21 gaztek Donostiako "Korapiloak askatzuz" lantegian landu zituzten gaiak.



Jarduera horiek GUZTIAK ezin izango ziren egin FEVAPASen BEGIRALE BOLUNTARIOEN kolaboraziorik eta laguntzarik gabe.

KOMUNIKAZIOA II

Begiraleentzako **prestakuntza-ikastaroaren** izenburua da. **Azaroaren 11n** egin zen

Vitoria – Gasteizen // **7 pertsonak** parte hartu zuten.

Gure kide eta lagun IMANOL ekarri nahi dugu GOGORA, abuztuaren 1ean hil baitzen.

Eskerrik asko zure lanagatik, zure animoarengatik eta FEVAPASeko haurrekin eta gazteekin partekatzeko zure proposamenengatik. **Ez zaitugu INOIZ ahaztuko.**

Barnetegiak prestatuko ditugunean, eztabaidatzeko bilduko garenean eta irteerak egingo ditugunean gurekin IZANGO ZARA. **GOIAN BEGO, Imanol**





FAMILIA-PROGRAMA

FEVAPASek KOORDINATU DITU Elkarte Federatuak familiei arreta eta laguntza emateko lan bateratuan.

Familien eta eragindako pertsonen **BIZI-KALITATEA HOBETZEKO HELBURU** nagusiarekin

HAUXE IZAN DA KOORDINATUTAKO LANA:

*** Honetarako BIDERATUTA:** Orientazio eta informazio eguneraturako, objektiborako, zabalerako eta zehatzerako //

Laguntza psikologiko eta emozionalerako // Familientzako informaziorako eta prestakuntzarako.

*** HONAKO HAUEN BIDEZ:** Kasu bakoitzaren arreta eta jarraipen zuzenaren bidez // Eskaera indibidualen

kudeaketaren bidez. Ama/aita ama/aitari laguntzaren bidez // Gogoeta eta prestakuntza taldeen bidez // Laguntza

psikologikoaren bidez // Aldizkako koordinazioaren bidez profesional ezberdinen // Familien topaketen bidez //

Prestakuntza-hitzaldien eta -ekintzen nahiz informatiboen bidez // Sozializazio-jardueren bidez...

500 FAMILIA inguru dira FEVAPASen HIRU* ELKATEE federatuetako kide

***ARANSKI** Gipuzkoan / **ASPASOR** en Araban / **ULERTUZ** Bizkaian



Fevapas INFORMAZIOA



HEZKUNTZA - Hileroko **BILERAK**, Lan-batzordearenak, **EAEko ikasle gorra** eskolatzeari buruzko dokumentua eratzeko eta eguneratzeko. **Hezkuntza-berrikuntzako zuzendaritza berriak** eskatutako bilera berria **ITXAROTEN**

GIZARTE-POLITIKAK maiatzean, FEVAPASeko koordinatzailea eta presidentea **aurkezpen- eta informazio-bilera** batera joan ziren Gizarte Politiketako kontseilariarekin eta kontseilari ordearekin.

OSASUNA / OSAKIDETZA - irailean, FEVAPASeko elkarte federatuetako zenbait ordezkari eta koordinatzailea **BILDU**

ZIREN osasun-programetako aholkulariarekin eta osasun-berrikuntzako euskal Fundazioaren arduradunarekin. Nork bere burua aurkeztu zuen eta gaur egun kolektiboak dituen beharrei eta haren egoerari buruz aritu ginen.

Azaroaren 27an —Osakidetza eta Osasuneko ordezkariarekin egindako urteko bilera: detekzio goiztiarra, laguntza teknikoak, logopedia...



EDEKAN lan egiten jarraitzen dugu- hileroko bileretan eta desgaitasunaren inguruko beste erakunde batzuetako kideekin - **guztion ESKUBIDEEN** alde // **Abenduaren 15ean Edeka 17 JARDUNALDIA** egingo da Donostian, eta gaiak **emakumea eta desgaitasuna** izango dira.

INFORMAZIO GEHIAGO elkarte federatuetan

FEVAPAS jardunaldietan, konferentzietan, hitzaldietan eta lantegietan, honako hauei **BURUZKOETAN**:

Boluntariotza, gizarte-zerbitzuak, irisgarritasuna, Euskadiko hirugarren sektorea, berdintasuna, datuak

babesteko legea, laneko etika...



ASPASOREK 40. URTEURRENA OSPATUKO DU

“40 urtez pertsona gorren eta beren familien ahotsa entzunarazten”

Esan genezake beste urte bat baino ez dela, baina, zenbaitetan, edozein mugimenduren elkarte-bizitzari ondo datorkio eten bat egin eta aurrera jarraitzea. Hortaz, **40 urte ospatzeko moduko denbora dela erabaki dugu.**

ASPASORen lan-ildoan urtebetze apal bat izango da, eta saiatuko gara 40 urte hauen buruan erakundearen parte izan direnen artean ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea.

- * **Ibilaldi bat** Legazpira Olentzerori gutuna entregatzeko, nahi duten familia guztiekin, abenduaren 6an.
- * **Bideo bat eratzea**, erakundearen historia laburtzeko.
- * **Otsailaren 17a**, ospakizunaren egun nagusia, **mahai-inguru bat** goizez, herri-bazkaria eta **familia-ikuskitza bat** arratsaldean.

Orain prestatu dugunaren aurrerapen bat da hori, eta informatuko dizuegu jarduera guztiei buruz. Horrez gain, jakina, familia eta pertsona guztiei gonbitea luzatuko diegu, bertan izateko interesa dutenei.



ULERTUZ MARTXA SOLIDARIOA

Urriaren 22an, igandean, Ulertuzek lehen Familia Martxa Solidarioa egin zuen Getxon.

Lasterketaren helburu nagusia zen funtsak biltzea gure familiei arreta emateko lokala irisgarri egiteko obraren gastuak ordaintzeko. Baina, halaber, aukera ona zen nor garen eta egiten duguna hedatzera emateko; beste behin ere, entzunezko desgaitasuna duten haur eta gazteen zein beren familien ahots entzunaraziz.

Eguraldia txarra izan bazen ere, jardunaldia oso positiboa izan zen, algaraz beterikoa eta aukera eman zuena pertsona maiteekin elkartzeko. Gainera, emaitzak positiboak izan ziren oso. Parte-hartzea handia izan zen, gure familien eta lagunen aldetik nahiz erakundearen parte ez diren pertsonen aldetik. **400 pertsonak baino gehiagok** babestu zuten gure auzia, eta elkarteak eskerrak eman nahi dizkie. **Eskerrik asko, gaur eta beti!**



Aurten AransGi-k 50 urte bete ditu (1967-2017)

Denbora horretan zehar, hainbat familia eta pertsona gorri arreta eman zaie elkarteak eskaintzen dituen programen bidez.

Halaber, beste gipuzkoar askok, ahotseko, hitz egiteko, hizkuntzako eta irenketako arazoak dituztenek, arreta diagnostikoa eta errehabilitazio-arreta jaso dute.

Hainbat aldaketa gertatu dira gizartearen ikuspegitik nahiz entzunezko desgaitasuna duten haurren eta gazteen erreferenteen aldetik.

Hala ere, garapen teknologikoak aurrera nabarmen egin badu ere, hezkuntza-sistemak erantzun egokiagoa eman du gure seme-alaben beharretarako. Halaber, gizarte-mailan ikusgarritasuna eta irisgarritasuna hobeak dira, **baina**

oraindik ere beharrezkoa da elkarte-mugimendua, haienezko guztientzako arreta- eta aurrerapen-maila handiagoak bermatze aldera.



FEVAPASETIK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



COLABORA / LAGUNTZEN DU

